

Forma NAEN

Mugaz haraindiko lanbide heziketa sustatzeko apostu ausarta

2020ko otsailaren 21



Forma NAEN proiektuak Administrazio Kudeaketaren modulu bat eta automobilgintzaren esparruko esperientzia-piloto bat diseinatuko ditu Gaur bertan abiarazi da proiektua Baionan, lantegi batzuen bidez; horietan Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako 40 ikaslek hartu dute parte

Forma NAEN Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako eskualdeek abiarazi duten ekimen bat da, 2020-2022 biurtekorako lanbide heziketaren esparruan eskaintza kualifikatu eta zehatz bat garatu nahi duena, mugaz gaindiko agertokira egokitua egongo dena eta gazteei enplegu-aukera errealak eskaintzeko gaitasuna izango duena.

Proiektu hau, alde batetik, ikasketak eta ikerketak burutzera bideratuta dago –tituluak baliozkotzeko, gaitasunak eratzeko eta abarrerako beharrezkoak direnak–, eta bestetik, heziketa-modulu praktikoak sortzera. Zehazki, proiektuak lau helburu ditu:

- **Mugaz Gaindiko Administrazio Kudeaketaren** modulu bat diseinatzea, hiru eskualdeetako araudi legal eta komertziala izapidetzen adituak izango diren langileak trebatzeko eta, era berean, eskualde horien arteko lan-harremanak erraztu eta areagotuko dituenak.
- **Automobilgintzaren** sektorean integrazio profesionala sendotzea, tituluaren eta kompetentzien baliokidetasuna eta baliozkotzea aztertuz; eta trebakuntza eta mugikortasun egiaztatuan esperientzia piloto bat burutzea.
- Hizkuntza desberdinetan **hiztegi teknikoaren** trebakuntza-ikastaro bat diseinatzea eta sortzea administrazio kudeaketaren eta automobilgintzaren arloetan.
- **Sentsibilizazio-ekintza** ugari burutzea parte hartzen duten ikastetxeetako ikasle eta irakasleen artean. Ikasleekin Euroeskualdearen eremuan garapen profesionalerako dauden aukerak landuko dira; irakasleekin, berriz, jardunbide egokien jardunaldien bidez, aukera-berdintasunari eta garapen jasangarriari buruzko zeharkako printzipioak jorratuko dira.

Proiektu honek zazpi bazkide sustatzaile dauzka, Euroeskualdeaz gain, eta hamar erakunde laguntzaile ditu hier eskualdeetan:

	BAZKIDE SUSTATZAILEAK	ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK
AKITANIA BERRIA	<ul style="list-style-type: none"> • Pirinio Atlantikoetako Lanbide eta Artisautzaren Ganbara • Akitania Berriko Lanbide eta Artisautzaren Eskualde-Ganbara 	<ul style="list-style-type: none"> • Paul Bert lanbideen institutua • LGT Saint-Dominique • Louis de Foix institutua
EUSKADI	<ul style="list-style-type: none"> • ZubiGune Fundazioa • CIFP Usurbil LHII • Ikaslan Gipuzkoa • Tknika 	<ul style="list-style-type: none"> • Plaiaundi BHI • Don Bosco LHII • LHEEI
NAFARROA	<ul style="list-style-type: none"> • Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua 	<ul style="list-style-type: none"> • Donapea IIP • Virgen del Camino IB • Elizondo Lanbide Eskola IIP

Ekimen hau ofizialki gaur goizean aurkeztu da Baionan, Lanbide eta Artisautzaren Ganbaran, honako ordezkari hauek bertan zirelarik: **Andde Sainte-Marie** (eskualdeko kontseilularia, Akitania Berrikoa), **Iñigo Araiztegui Arraiz** (Nazioartekotze Arloko Koordinatzailea (Tknika / Eusko Jaurlaritzan)), **Nora Amorena Iturralde** (Ikaslaneko Presidenteordea), **Esther Monterrubio Ariznabarreta** (Nafarroako Gobernuko Lanbide Heziketa Zerbitzuaren zuzendaria), **Tomás Rodríguez Garraza** (Nafarroako Gobernuko Lanbide heziketaren zuzendari nagusia) eta **Arola Urdangarin Ferreira** (Euroeskualdearen zuzendaria).

Proiektuari hasiera eman dion jardunaldi horretan, lehenengo lantegiak gauzatu dira, eta proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetan Lanbide Heziketa burutzen ari diren berrogei ikaslek parte hartu dute horietan.

Forma NAEN proiektuak 746.875,68 euroko aurrekontua dauka eta aurrekontu horren % 65 Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatzen du Espainia, Frantzia eta Andorraren (POCTEFA 2014-2020) Interreg V-A programaren bidez. POCTEFaren xedea mugaz haraindiko Espainia-Frantzia-Andorra esparruko integrazio ekonomikoa eta soziala sustatzea da. Lurraldearen garapen jasangarria sustatzen duten baterako estrategien bidez, jarduera ekonomikoak, sozialak eta ingurumenaren alorreko jarduerak garatzera bideratuta dago laguntza hori.

KIDEAK



PARTAIDE ELKARTUAK



PRENTSAKO KONTAKTUA
presse@euroregion-naen.eu

Aude Lagrabette
 0033 663029517

Feli Sanz
 0034 637555305